

TOLOSALDEKO EMAKUMEEN ETXEA GARATZEKO PROZESUA

LANTALDE POLITIKO TEKNIKOAREN AKTA

Eguna: 2021-04-26

Ordua: 18:00-19:30

Lekua: Tolosako Udala

PARTAIDEAK
Tolosako alkatea
Tolosako Udaleko zinegotzia
Berastegiko alkatea
Asteasuko alkatea
Tolosako Asanblada Feminista (2 ordezkari)
Tolosako Udaleko berdintasun-teknikaria
Elhuyar

Gai zerrenda:

1. Prozesuaren 2. fasea aurkeztu, kontrastatu eta adostu

Tolosaldeko Emakumeen Etxea sortzeko partaidetza-prozesua egiteko Elhuyarrek Tolosako Udalari aurkeztu dion **lanerako proposamena** aurkeztu dugu: helburuak, lan-egitura nagusiak, lanerako prozesuaren urrats nagusiak eta aurreikusten diren lanketa nagusiak.

Hona hemen **aurkeztutako dokumentua**:



Aurkezpina_prozesua
.pdf

Proposamena egoki ikusi da.

2. Kudeaketa-ereduaren proposamena aurkeztu eta kontrastatu

Kudeaketa-ereduaren **nondik norako nagusiak** aurkeztu ditugu, zehazki, aurreikusten ditugun lanerako guneen eta horietako bakoitzaren inguruko informazio orokorra eman dugu:



Datozen egunetan proposamen zehatzagoa landuko dute Elhuyarrek eta Agurtzak, eta bilera honen aktarekin batera bidaliko zaie partaideei, kontrastatzeko eta balizko ekarpenak egiteko.

3. Gainontzeko lanak nola bideratu zehazten hasi

Maila politikoan landu beharreko lanketetan jarri dugu arreta, eta batez ere **finantzazio partekaturako ereduaren** inguruan jardun dugu, eta 1. fasean zehaztutakoa gogorarazi dugu:

03 Finantzaketa partekaturako eredia

Gastuen estimazio hau egin du Tolosako Udalak:

- **Mantenu-gastuak** (ura, gasa, elektrizitatea): 24.000 €. Tolosako kultur etxearen zenbakiak hartu dira aintzat kalkulua egiteko.
- **Zerbitzu berrien gastuak** (3-4 zerbitzu aurreikusi dituzte): 25.000 €
- **Aparteko jardueren gastuak** (emakumeek euren aldetik antolatuko dituzten jarduerenak): 37.000 €
- **Dinamizatzailearen gastea**: 52.000 € (oinarrizko soldata, ordainsari osagarriak, gizarte segurantzaren...)

Gastuak ordaintzeko irizpide gisa proposatzen da udal txer bakoitzaren **ahalmen ekonomikoaren arabera** egitea banaketa, alegia, udal bakoitzaren aurrekontu arruntaren arabera.

03 Finantzaketa partekaturako eredia

- **Tolosako Udalak** gastu hauek hartuko lituzke bere gain: eraikina + hornidura + mantenua + zerbitzu berriak + jarduerak.
- **Tolosaldeko udalek** gastu hauek hartuko lituzkete beren gain: mantenua + zerbitzu berriak + jarduerak + dinamizatzailea.
- Finantzaketa partekatua arautzeko, **juridikoki hainbat aukera**:
 - Lankidetzaren hitzarmena
 - Udalen arteko akordioa + dinamizatzailea mankomunitate bidez kontratatatu
 - Udalen arteko akordioa + dinamizatzailea kontratatatzeko elkarte sortu

Jarraian, **aukera horietako bakoitzaren inguruko informazioa** partekatu dugu:

- a) **Udalen artean lankidetzaren hitzarmena egitea**, aurreikusitako gastuei aurre egiteko. Hitzarmenean finantzaketarekin lotutako xehetasun guztiak jasoko lirateke, eta baita funtzionamenduarekin zerikusia duten alderdiak ere (erabakiak nola hartu...). Etxearen egitasmoan parte hartuko luketen udal guztiek sinatu beharko lukete.

Lankidetzaren hitzarmenak iraupen mugatua du, lege 4 urte iraun dezake indarrean, beste 4 urte gehiagoz luzatzeko aukerarekin; baina luzapen hori espresuki adostu egin behar da. Hitzarmena edukitzeak ez dakar nortasun juridiko propioa edukitzea. Horrek zailtasun batzuk sor ditzake pertsonak kontratatatzeko garaian, ez dagoelako berariazko erakunde kontratatzailearik. Honenbestez, udalen artean formulak adostu beharko lirateke kontratazioa bideratzeko eta horren segimendua egiteko.

- b) **Mankomunitatearen bidez egitea dinamizatzailearen kontratazioa**. Erakunde publikoa da, iraunkorra da, kontratazio-baldintzak ezartzeko gaitasuna du... Halere, estatutuak aldatu beharko lirateke, konpetentzien artean berdintasuna txertatzeko, eta horrek denbora eskatzen du. Denbora-tarte horretarako elkarte bat sortzea litzateke beste aukera bat.

- c) **Tarteko bidea: udalen artean elkartea eratzea**, besteak beste, Etxearen jarduerak kudeatzeko. Nortasun juridikoa edukiko genuke, kontratuak egiteko ahalmenarekin, eta ez luke iraupen mugatua edukiko. Finantzaketa partekatua nondik norakoak (udal bakoitzak egin beharreko diru-ekarpena, udal bakoitzaren eskubideak eta betebeharrak eta abar) akordio baten bidez zehaztu beharko litzateke.

Tolosaldeko ordezkari politikoek datozen asteetan **zein aukeraren alde egin adostu**, eta **bide hori jorratzen** hasia komeni da.

4. Komunikazio-ekintzak aurkeztu

Udaleko komunikazio-arduradunekin elkarlanean, komunikazio-ekintza hauek egitea adostu dugu:

- Prozesua hasten dugula jakinarazteko **prentsurrekoa** egingo dugu, Talde Eragileren bileraren aurretik. Agurtzak arduratuko da data konfirmatzeaz.
- Tolosako **Udalaren webgunean Emakumeen Etxearen inguruko atala sortuko** dugu, eta bertan joango gara prozesuaren inguruko informazio guztia eskuragarri jartzen (bileren deialdiak, lanerako gune guztien bileren aktak...). Tolosaldeko gainontzeko udaletako webgunean lotura bat txertatuko dugu, Emakumeen Etxearen atalera.
- Prozesuan zehar **udal-aldizkarian elkarrizketa** bat egingo diegu prozesuan parte hartzen ari diren emakumeei
- Talde Eragileko nahiz Gune Zabaleko **bilera-deialdiak emailaz, sare sozialen bidez nahiz informazio-panelen** bidez egingo ditugu.

Horrez gain, adostu dugu **eskualdeko udal guztietara gutun** bat bidaltzea, prozesua abiatu dugula jakinarazteko. Agurtza arduratuko da gutuna bideratzeaz.

5. Besterik

Talde Eragilearen **1. bilera maiatzaren 6an** egitea aurreikusten bagenuen ere, maiatzaren 10era atzeratu dugu, Jabekuntza Eskolako ikastaro batekin ez kointziditzeko.

Bestalde, ez dugu **Lantalde Politiko Teknikoaren hurrengo bilera-eguna** adostu.

Hartutako konpromisoak:

KONPROMISOA	ARDURADUNA	DATA
Kudeaketa-ereduaren proposamena gehiago zehaztu eta Lantaldeko partaideei bidali.	Agurtza/Elhuyar	Maiatza
Finantzaketa partekaturako ereduak zehazten hasi.	Ordezkaritza politikoak	Maiatza-ekaina
Prentsurrekoaren data konfirmatu.	Agurtza	Lehenbailehen
Komunikazio-lanei segimendua egin: webgunean atal berezia sortu, eta eskualdeko udaletara gutuna bidali.	Agurtza	Maiatza